

Juanjo Olasagarre



Ia hemen

XABIER LETE IV. Poesia Saria



Ia hemen

Olasagarre, Juanjo

ISBN: 978-84-9172-055-3

Poesia saila, 41

2018. urtea / 120 or.

14,00€

XABIER LETE IV. Poesia Saria

«Trabazle geratu den *Ia hemen* liburuaren ezaugarrien artean, poemen egikera aberatsa eta hats luze zein sakonera handiko hausnarketa izatea goraiatu du epai-mahaiak. Ironia baliatzen du egileak, ausart eta anker. «Hemen ez da ezer gertatzen» esanez labur genezake esaten den guztiaren gainezkaldiaren ostean geratzen dena.

Poema bilduma anitza da formen, irudien eta gaien ikuspegitik. Gizon egin baten bizitzaren pusketatik sortzen den hausnarketa aldi liriko eta aldi berean petrala eskaintzen du Juanjo Olasagarre euskal poeta ezagunaren obra honek. Urbanotasuna, naturarekiko atxikimendu mikatza, norberarekiko arrotasuna, itzuleran beti norabait iristea, maitasuna, ez-maitasuna, bulkada homoerotikoak, hausnarketa filosofikoak, hona bildumako ildo oparoak...

Horregatik epai-mahaiak *Ia hemen* bilduma hau hautatu du, aho batez, Xabier Lete poesia sariaren laugarren ediziorako.»

(Epaimahaiaren aktatik)

JUANJO OLASAGARRE

(Arbizu, 1963)



• • • •

Gaupasak, Bizi puskak eta Puskak biziz ditu orain arteko poema liburuak. Narratiban *Ezinezko Maletak, T eta Poz aldrebasa* nobelak idatzi ditu, baita *Mandelaren Afrika* bidaia-kronika liburua ere. Astero-astero zutabe bat idazten du *Deia* egunkarian azkeneko hamar urteetan. Azken boladan *Berrian* ere aritzen da hilabetean behin.



www.pamiela.com • 948 326 535
soltxate@pamiela.com